

134. ALDIZKARIA - 2000ko azaroaren 6a

III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

E T X A L A R

Udalaren Hirigintza Plana

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak behin betikoz onetsi zuen Etxalarko Udal Plana abenduaren 20ko 1531/1999 Foru Aginduaren bitartez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluari jarraituz, Udal Planaren ondoko arauak oso-osorik argitaratzen dira:

-
-
-

VII. KAPITULUA : Lurzoru urbanizaezinaren hirigintzako araubidea

Arau orokorrak

1. artikulua. Definizioa eta hirigintzako helburuak.

Udal plan honen ondorioetarako, lurzoru urbanizaezina osatzen dute hiri-garapenaren prozesutik babestu behar diren Etxalarko eremuek. Horietan babes eta kontrol neurriak ezarriko dira, gaur egun bereizgarri dituzten balioa, izaera eta xedea gal ez ditzaten.

2. art. Lurzoru urbanizaezinaren kategoriak.

Lurzoru urbanizaezinean (LUE) honako kategorია hauek bereizten dira:

- 1.a. Baso-lurzorua.
- 1.b. Baso-lurzorua: usategiak.
2. Produktibitate ertaineko lurzorua.
 - 3.a. Lurzoru generikoa.
 - 3.b. Lurzoru generikoa: aduana.
4. Ukipen berariazkoen lurzorua.
 - 4.a. Lehendik dauden azpiegiturak.
 - 4.b. Azpiegitura aurreikusiak.
 - 4.c. Ur babestuak.
 - 4.d. Populaziogunearen ingurunea.
 - 4.e. Igerilekuen inguruneak.

3. art. Lurzoru urbanizaezinaren araubide orokorra.

1. Lurzoru urbanizaezina bere izaerari hobekien dagokion moduan erabili beharko da.
2. Lurzoru urbanizaezinaren jabe izateko eskubidearen ahalmenak erabiliko dira araudi honen mugen barranean eta bertako betebeharrak betez, eta aipatu lurzoru horren gainean ez da onartuko kategoría bakoitzean baimendu daitekeenetik kanpoko eduki eraikigarriak.
3. Lurzoru mota honetan araudi hau aplikatzeak ez die lurren jabeek kalteordainik exijitzeko eskubiderik ematen, zenbait eremutan eraikitzea erabat galarazia egonen dela ezartzen bada ere.

4. art. Populaziogunea.

- a) Hurrengo artikuluen ondorioetarako, populaziogunetzat hartuko da lurzati bakar bat banantzearen ondorioz etxebizitzetarako 4 eraikin baino gehiago, aldi berean edo bata bertzearen ondotik, egitea.
- b) Ez dira populaziogunetzat hartuko:

- 1.-Auzo izena duten baserri multzoak.
 - 2.-Auzo tradizionaletan egiten diren eraikin berriak.
 - 3.-Eraikina lotzen bazaio arau hauetan eraikin bakartutzat hartua izateko aipatzen den lur motari.
- c) Auzoari Landagune Sakabanatua izena ematen zaio.

5. art. Erabilera motak.

Hiru erabilera mota daude, egoera juridikoaren eta dagokion kudeaketa-moduaren arabera:

-Erabilera baimenduak, Udalaren lizentzia behar dutenak eta bertzelako organo edo administrazioen baimena ere behar izaten ahal dutenak.

-Erabilera baimengarriak, Udalaren lizentzia izan baino lehen Ingurugiro eta Lurraldearen Antolamenduko kontseilariaren baimena behar dutenak, eta bertzelako organo edo administrazioen baimena edo lizentzia ere behar izaten ahal dutenak.

-Erabilera galaraziak. Halakotzat hartzen dira beren izaeragatik bateraezinak direnak lurzoru kategoria bakoitza babesteko helburuekin eta, nolana ere, lurzoru mota jakin baten izaera juridikoaren aldaketa eskatzen dutenak, bertzelako edozein baimen edo lizentzia baino lehen.

6. art. Banantzeak.

a) Finken banantzeak udal lizentzia behar duten egintzak dira.

b) Jabetza eskuz aldatzen denean, landa lur edo finken zatiketak egitean ezin izanen da banantzerik egin nekazaritzako legeriaren aurka.

c) Banantzearen ondorioz sortutako lurzatiek eremu horretarako ezarria dagoen lurantzako unitate minimoa izan beharko dute.

d) Banantzearen helburua eraikitzea delarik, bete beharko dira Arau hauetan, lurzoru urbanizaezinen mota bakoitzean eraikitzea baimentzeari buruz, ezartzen diren baldintza guztiak.

e) Bi lote edo gehiagotan zatitzea (aldi berean edo bata bertzearen ondotik), populaziogune bat eratzeko aukera ematen badu, galarazia dago, hori lurzoru urbanizaezinean lurzatieketa egitea izanen bailitzateke.

7. art. Lurzatieketak

a) Lurzatieketa da bi lote edo gehiagotan,aldi berean edo bata bertzearen ondotik, egindako zatiketa, populaziogunea eratzeko aukera ematen duena.

b) Lurzoru urbanizaezinean ezin da lurzatieketarik egin.

8. art. LUEko eraikinen hirigintza-egoera Araudi hau onartzeko unean.

a) LUEan egon eta etxebizitza, borda, nekazaritzarako biltegi, abereentzako nabe, industri nabe, hegazti-ustiategi edo antolamenduz kanpo deklaratu ez dagoen bertzelako erabilera duten eraikinetan, eraikina haunditu, hobetu, konpondu eta finkatzeko obrak egiten ahal dira, edo eraikinaren ordez bertze bat egiten ahal da, betiere eraikina ez bada antolamenduz kanpoko edo babestua.

b) Etxebizitzetarako eraikinak azalera edo altueran haunditzen ahal dira, solairu bakoitzean 250 m² izan arte eta gehienez ere terrenoaren puntu bakoitzean neurtutako 3 solairu izan arte.

Egun dauden etxebizitzetarako eraikinek lurzati berean eraikin osagarri bat egiten ahal dute, araudi honen 16. artikuluan emandako baldintzen arabera eta lehendik dagoen eraikinarekin 100 metro baino gehiagoko tartea izan gabe. Lurzoru urbanizaezineko etxebizitzetarako eraikin bakoitzak gehienez ere bi etxebizitza izaten ahal ditu bere baitan.

c) Lehendik dauden bordak.

Zaharberritzen ahal dira, bai bere jatorrizko erabilerrako, bai erabilera berri baterako:

Etxebizitza (denboraldirako edo ohizkoa)

Etxebizitza turistikoa

Artisauen lantegiak

Mendiko aterpetxeak

Lurzatia modu hauetan bakarrik ixten ahal da:

-Harlauzekin.

-Egurrezko hesiekin (1,20 metrotik beheitiko altuera).

-Zutoin eta alanbreekin egindako ohizko itxierak.

Igerilekuak egitea debekatua dago.

Ataripeak eransten ahal zaizkie.

Estalkia goitiago altxatzen ahal da, teilatu hegalerara 2,80 metroko altuera gehienez.

d) Hegazti-ustiategiak, abereentzako nabeak eta nekazaritzarako biltegiak haunditzeko, instalazio berrietarako dauden baldintzak bete beharko dira.

e) Egun dauden industri-jarduerak haunditzeko apirilaren 5eko 84/1990 Foru Dekretuak 30. artikuluan dioena kontuan hartuko da:

1. Lehendik dauden industri eraikuntza eta instalazioen haunditzea baimentzen ahalko da, baldin eta lege urbanistikoak larriki urratzeagatik debekualdian ez badaude edota, Foru Dekretu honek agindutako baldintzei men eginez, planeamendu lokalak espresuki antolamenduz kanpora deklaratu ez baditu. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilariak, ezarritako baldintzetariko batez salbuesten ahalko du, ikuspuntu urbanistiko hutsetik betetzea materialki ezinezkoa dela frogatzen denean.

Haunditzeko arrazoiak ekoizpen prozesuen arlokoak izanen dira.

2. Debekaturik gelditzen da, industria erabilera ezarri nahirik, lurzoru urbanizaezinean kokaturiko nekazaritza-instalazioen erabilera aldatzea.

3. Lurzoru urbanizaezinean kokatutako eraikinetan, industria jardueren aldaketa baimentzen ahalko da. Horretarako enpresa bakartasunak iraun beharko du, hau da, ez da zatiketarik gertatu behar eraikuntzaren barnean zein kanpoan industria berriak jarriz, ezta proindibiso izaeran ere, eta,

gainera, planeamendu lokalak ordenamenduz kanpora deklaratu gabe egon beharko du instalazioak berak edo industria jarduera berriak. Jarduera aldaketa baimenduko da baldin eta Foru Dekretu honek agindutako baldintzak betetzen baditu. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilariak ezarritako baldintzetarikoren batez salbuesten ahalko du, ikuspuntu urbanistiko hutsetik betetzea materialki ezinezkoa dela frogatzen denean.

4. Antolamenduz kanpora espresuki deklaraturako industria eraikuntzak eta instalazioak, 10/94 Foru Legeko 60. eta 61. artikuluek ezarritako hirigintza araubideari lotuko zaizkio.

f) Lehendik dauden instalazio edo jardueren haunditzea eta ordezkatzea baimenkizun diren jardueren moduan tramitatuko dira, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legearen 42. eta 44. artikuluen arabera.

9. art. Eraikin mota guzientzako arau orokorrak.

* Edozein eraikuntza mota baimendu ahal izateko lurzoru urbanizaezinean bete behar diren baldintzak:

-Eraikinetik lurzatiaren mugarekiko tartea 3 metro baino gehiagokoa izatea.

-Lurzatiak eta bideak muga egiten duten zatian 2 metroko zerrenda lagatzea, publiko gisa, lurzatiaren aurrealde osoa hartzen duela, bidea zabaldu ahal izateko.

-Terrenoaren malda %30 baino txikiagoa izatea.

-100 m² baino azalera txikiagoa duten eraikinen estalkia teila gorriarekin egitea.

* Eraikinek tokiko ezaugarriekin bat egin dezaten:

-Bideen inguruetan ikuspegi interesgarriak edo oihanak daudenean, ez da onartuko eraikin, pareta edo itxieren kokapen, masa edo altuerak edo ikuspegi horri traba egin diezaiokeen bertze edozein elementuk paisaiaren balioa gutxitzea edo ikuspegi horiek hondatzea.

-Malda, tamaina, ezaugarriak, zuhaitzik eza edo gisako arrazoiengatik, zenbait tokitan eraikinen eragina paisaian nabarmena izan liteke. Kasu horietan paisaia errespetatzeko neurriak areagotuko dira. Galaraziak izanen dira bere tamaina edota tratamenduagatik inguruan eragin negatiboa sortzen duten eraikinak.

-Hori guzia aztertu ahal izateko, udalari egindako eskaerarekin batera inguruari buruzko argazkiak edota marrazkiak aurkeztuko dira.

10. art. Baratz zaintzarako eraikinak eta instalazioak. "Baratzeko edo lorategiko txabolak".

Tresnak bildu eta altxatzeko eraikin txikiak dira. Oinplanoan ezin izanen dute 15 m² baino gehiagoko azalera izan, eta gehienez ere teilatu-hegalera 3 metroko altuera izanen dute. Estalkia bi edo lau isurialdetakoa izanen da, teila gorriarekin edo ainar kolorekoarekin. Kanpotik luzitu eta pintatu egin beharko dira, kolore okre argiekin. Bertzela, harri-paretekin eraikiko dira edo egurrezko estalkiarekin.

Zurgin lanak egurrez egingen dira. Debekatua dago bertze edozein material erabiltzea.

Egurrezko txabola aurrefabrikatuak ere paratzen ahal dira. Betiere artikulua honetan ezarritako ezaugarriekin (azalera, eta estalkia bi edo lau isurialdetakoa).

Gainerako txabola aurrefabrikatuak galaraziak daude.

11. art. Biltegi eta instalazio industrialak.

Estalkia: bi edo lau isurialdetakoa izanen da. Teila zeramikozkoa edo hormigoizkoa izan liteke, betiere gorrien kolore-sortakoa. Txapa lakatua eta fibrozementua ere erabiltzen ahal dira, gorri kolorean bakarrik.

Fatxadaren akaberako materialari dagokionez, luzitu egingen da, zuriz pintatuz. Txapa zuria edo kolore argikoa ere erabiltzen ahal da. Debekatua dago hormigoia agerian uztea, bai masa edo bai bloke gris laua izanik ere, baita bistako adreilua ere. Zurgin lana edozein materialekin egiten ahal da, aluminioa bere kolorean utzita izan ezik.

Eraikitako azalera guzira edo zati bat teilapez uzten ahal da.

Eraikinak finkaren mugatik 3 metrotara egonen dira gutxienez.

12. art. Berotegiak.

Halakotzat hartzen dira tunel antzera, egitura metalikoan oinarriturik eta plastikoz itxiak, eginiko instalazioak. Helburua edozein motatako nekazaritza-labore estaltzea, babestea, itzal ematea edo gordetzea da.

Ez dira eraikintzat hartzen desmontatzen ahal diren eta metro bat baino gehiagoko sakonera edo altuerako pareta perimetralik ez duten berotegiak.

Gisa honetako instalazioetan, ustiategi errentagarria 4.000 m² ingurukoa da. 6.000 m² baino gehiagoko instalazioen kasuan, espedientean sartu beharko da paisaiaren gaineko eragina eta hori gutxitzeko neurrien ebaluazioa.

13. art. Abeltzaintza estentsiborako eraikin eta instalazioak. Bordak

Abereentzako instalazioak dira. Azienda-buruko 1.2 m²ko azalera estalia izanen dute. Kanpoan gehienez ere azienda-buruko 1.5 m²ko azalera hesitua izanen dute.

Eraikinak finkaren mugatik 3 metrotara egonen dira gutxienez.

Modu tradizionalen eraikiko dira.

14. art. Abeltzaintzako ustiategiak. Aziendategiak.

* Abeltzaintzako ustiategiak. Abeltzaintzako ustiategi edo aziendategizat hartzen dira edozein motatako animaliak (hegaztiak barne) hartu eta edozein modutako ustiapenerako direnak, baita tunel moduan edo kanpin moduan egiten direnak ere.

* Tramitazioa. Produktibitate ertaineko lurzoru urbanizaezinean edota lurzoru urbanizaezin generikoan egiten ahal dira. Gainerako lurzoru urbanizaezinetan galaraziak daude.

* Sarbidea. Lurzati guzian 2 metroko zerrenda laga beharko da, bidea haunditzeko.

* Biderainoko distantzia. Bidearen ertzetik gutxienez 3 metro beharko dira eraikuntzeraino (egungo egoeran, bidearen ertzetik 5 metro).

* Baldintza tekniko higieniko-sanitarioak. Indarrean dagoen uztailaren 24ko 188/1986 Foru Dekretuak, edo hau ordezka lezakeenak xedatzen dituenak.

* Eraikuntzaren baldintzak eta baldintza estetikoak.

* Estalkiak: Gorriak eta bi isurialdetakoak. Teila erabiliko da eraikina 100 m² baino txikiagoa baldin bada.

* Fatxada: Galarazia dago bistako blokearekin edo bistako adreiluarekin egitea.

Luzitu eta zuriz pintatzen ahal da. Txapa zuria edo kolore argikoa.

* Lurzatiaren urbanizazioa.

Derrigorrez jarri beharko dira landareak hesi moduan, paisaia itxuratzeko helburuarekin.

Sarbideak eta maniobrarako tokiak zolatuko dira.

Galarazia dago saretarekin ixtea. Galaraziak daude 70 cm baino gehiagoko itxiera opakoak.

Jabeak derrigor ingurua garbi eduki beharko du, batez ere galtzadak.

Mota honetako instalazioak hiri-lurzorutik 100 metro baino gehiagoko distantzian eraikiko dira.

Instalazio horietatik lurzoru urbanizaezinean dauden etxebizitzetara gutxienez 50 metro izan beharko dira. Distantzia hau txikiagoa izaten ahal da, baldin eta etxebizitza horietako jabeek idatziz baimena ematen badute.

Nekazaritzako edo abere-instalazio hauek ezin izanen dute ke, usain edo soinuengatik inolako molestiarik sortu. Honi dagokionez, Udalak eskumena dauka eragozpen horiek zuzentzeko behar adina neurri betearazteko.

15. art. Erlezaintzarako instalazioak.

Gisa honetako instalazioek hiri-lurzorutik gutxienez 1.000 metrotara egon beharko dute.

Erlezaintzarako instalazioen arteko gutxieneko distantzia 750 metrotakoa izanen da.

Edozein errepidetarainoko distantzia 200 metro baino gehiagokoa izanen da.

16. art. Eraikin osagarriak

Estalpeak dira etxekoentzako biltegi edo garaje izateko egiten diren eraikin txikiak. Etxebizitza bakoitzeko bat baizik ezin da egin.

Okupaturiko gehieneko azalera, oinplanoan, 60 m²koa izanen da.

Oinplanoko forma angeluzuzena edo prismatikoa izanen da. Angelu zorrotzak galaraziak daude.

Kanpotik itxiak izan daitezke, 2, 3 edo 4 aldeetatik.

Estalkia maldan egingen da, agerian teila gorria duela.

Fatxadak luzitu egin behar dira eta kolore okre argiz pintatu. Bertzela harri-paretarekin egin daitezke. Gainerako materialak galaraziak daude.

Teilatu-hegalerraino gehieneko altuera 2.70 metrokoa izanen da.

Eraikin nagusitik gehienez ere 100 metrotara egonen dira.

17. art. Etxeko ukuiluak.

Etxeko ukuilutzat hartzen dira etxeko kontsumorako diren animaliak ustiatzeko instalazioak. Espezie bakoitzeko gehieneko kopuruak hauek dira:

5 zerrama

20 oilo edo uso

20 ahate edo bertzelako hegazti

10 untxi eme

Otsailaren 20ko 791/1979 Dekretuak arautzen ditu.

18. art. Nabe edo eraikin osagarrien eta etxebizitzetarako eraikinen estalkiak.

-Estalki guziak gorriak izanen dira.

-Oinplanoko azalera 100 m² baino gutxiago duten eraikinetan estalkia nahitaez teilarekin egingen da.

-Oinplanoko azalera 100 m² baino gehiago duten eraikinetan txapa erabiltzen ahal da.

-Etxebizitzetarako estalkia nahitaez teilarekin egingen da. Terraza moduko estalkia egiten ahalko da gibeledu edo aldeko fatxadan, betiere neurri txikiena 4 metro baino gehiagokoa ez bada.

19. art. Ehiztarientzako aterpeak.

10/94 Foru Legearen 42. artikulua xedatutako prozeduraren arabera egingen dira.

20. art. Lurzoru urbanizaezinean eraikitzekeo tramitazioa, familia bakarreko etxebizitzak barne

Nafarroako Gobernuan tramitatu beharreko dokumentazioa eman baino lehen, eraikuntzaren promotoreak Udalari Aurretiko Espedientea aurkeztu beharko dio.

Nafarroako Gobernuan tramitatu aurreko espedientea.

Nafarroako Gobernuari eraikitzekeo dokumentazioa tramitatzeko eskaera egin baino lehen, promotoreak Udalari aurkeztu beharko dio aurretiko dokumentazioa, zeinetan eraikuntzaren gehieneko lerrokadurak eta aurreikusten diren sarbideak zehaztuko baitira.

Honakoak aurkeztu beharko dira:

.Kokapen plano (1:1000 eskalan egin).

.Katastroko plano (1:500 eskalan egin).

Bietan eraikuntzaren oinplanoko neurriak eta kokapena proposatuko dira.

Hilabete bateko epean Udalak promotoreari erantzuna bidaliko dio, proposamenari zuzenketak eginez edo eskatzen zaizkion lerrokadurak eta lagapenak azalduz.

Azpiegitura guziak (sarbideak, hornidura, saneamendua, elektrizitatea, telefonoa) egitea eta horien mantentze-lanak eraikuntzaren jabearen kontura izanen dira.

21. art. Familia bakarreko etxebizitzek lurzoru urbanizaezinean bete behar dituzten baldintzak.

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak lurzoru urbanizaezinean etxebizitza berriak egitea baimentzen ahal du, baldin eta familia bakarreko etxebizitza bakartua eta titularraren ohizko bizilekua izatekoa bada.

2. Baimen-eskaerarekin batera, honako determinazio hauek betetzen direla frogatuko duen dokumentazioa aurkeztuko da:

- a) Etxebizitza nekazaritzarako eta abeltzaintzarako produktibitate ertaineko lurzoruan edo lurzoru generikoan egingen da.
- b) Titularraren ohizko bizilekua izanen da. Horretarako, jabeak baimen-eskaerarekin batera etxebizitza helburu horretarako izanen dela idatziz aitortuko du eta gainerako dokumentazioarekin batera milioi bat pezetako bankuko abala aurkeztuko du, bertan bizitzeko baldintza hau lehenbiziko borts urteetan beteko duela bermatzeko. Etxalarko udalerriko biztanleek ez dute abal hau aurkeztu behar, ezta Nafarroako inguruko herrietakoek ere.
- c) Eraikinari loturiko lurzatiaren azalera gutxienez 1.500 m²koa izanen da eta lurzatiaren ehuneko 66an, gutxienez, gauzatuko dira nekazaritza, abeltzaintza edo oihan jarduera edo erabilerak, eraikuntzaz kanpokoak.
- d) Lurzatiaren ehuneko 10 bertako zuhaitzak edo frutarbolak landatzeko izanen da.
- e) Eraikina inguruko eraikinen tipologiakoa izanen da, gehieneko altuera hiru solairukoa izanik, terrenoko puntu guzietan neurtuta.
- f) Eraikina inoiz ezin izanen da egin tontor, gailur, begiratoki natural, terraza bazter edo bertzelako leku ageriko eta berezietan, ez amildegi eta erreka-zola idorretan edo urak azpian hartzen ahal dituen lurretan edota osasungaitz eta arriskutsu izan litezkeenetan.
- g) Ezin izanen da eraiki berez ehuneko 10 baino gehiagoko malda duten lurretan, non eta espedientean ez den justifikatzen neurri zuzentzaile egokiak hartuko direla, alegia, lurraren hondamena eta higidura eta paisaiaren gaineko eragin negatiboa saihesteko balioko dutenak.
- h) Interes kulturala duten ondasun higiezinaren babeserako ingurunean kokatzeko baimena.
- i) Ez da baimenduko obrak, instalazioak, lur mugimenduak edo lurzatiaren sistemako aldaketak egitea, baldin eta horietarako zuhaitzak moztu eta, ondorioz, paisaiak edo oreka ekologikoak eraginik jasan behar badute. Eraikuntza egitean, lehendik dauden zuhaitzak ahalik eta gehien errespetatu behar baitira, kasuan kasuko proiektuan aipatu behar dira hartu gogo diren neurri bereziak eta, betiere, galarazia egonen da zuhaitzak matarrasan moztea.
- j) Herritarrak hornitzeko edateko ura hartzeko tokietatik gutxienez 200 metrotara egonen da eraikina.

3. Artikulu honek dioena betetzeko, familia bakarreko etxebizitzatako har daitezke, eraikin bakar batean bi etxebizitza dituztenak, betiere jabeen artean hirugarren maila bitarteko odoleko ahaidetasuna badute.

22. art. Eraikin aurrefabrikatuak.

Xedea edozein dutela ere, eraikin aurrefabrikatuak galaraziak daude. Salbuespen moduan hartuko dira lorategi eta baratzeetarako txabolak, zeinak araudi honetako 8. artikulua dioenari lotuko baitzaizkio.

Berriazko arauak

23. art. Baso-lurzoru urbanizazina

1. Kategoria honetan sartzen dira arboladiak hartzen dituzten lurrak, babestu behar direnak, beren tamainak eta kalitateak iraunen dutela bermatu eta gaur egun betetzen dituzten zereginei eusteko.

Hiru zuhaitz mota bereizi behar dira:

-Zuhaitz hostozabalak.

-Koniferoak.

-Sastrakadia.

2. Babes araubidea

Eraikuntzaz kanpoko jarduerak.

Landaretza erretzea galarazia dago.

Baimentzen ahalko da pista edo bide berriak irekitzea, luberritzea, zapaldak egitea, meategiak ustiatzea, legarra eta harea ateratzea, harrobiak eta matarrasan moztea, tradizionalki egin izan den tokietan eta baimena ematean jarritako baldintzak betetzen badira.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

Eraikuntzazko jarduerak.

Zilegi dira oihangintza eta erlezaintzarako eraikinak.

Baimentzen ahalko da eraikin eta instalazioak egitea, beharrezkoak direnean herri-lanak gauzatzeko, haiek mantentzeko edo haien zerbitzurako; egiten direnean lurzoru urbanizazinean kokatu behar diren ekipamenduetarako; lotuak daudenean lurzoru urbanizazinean egitekoak diren kirol eta aisiako jardueri; eta azpiegiturak direnean.

Gainerako guztiak galaraziak daude.

24. art. Baso-lurzorua: usategiak.

Lurzoru mota honen helburua Usategietako ingurunea babestea da. Bertan pasako usoa modu berezian ehizatu ohi da.

Babes araubidea.

Usategietako ohizko erabilerak bakarrik baimenduak daude, hau da, ehiza sare bidez eta usategitik. Inguru horretan galaraziak daude jardueran eragina duten edozein motatako aldaketa guztiak.

Eraikuntzaz kanpoko jarduerak.

Baimentzen ahalko da pista edo bide berriak irekitzea, luberritzea, zapaldak egitea, meategiak ustiatzea, legarra eta harea ateratzea, harrobiak eta matarrasan moztea, tradizionalki egin izan den tokietan eta baimena ematean jarritako baldintzak betetzen badira.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

Landaretza erretzea galarazia dago.

Publizitate estatikoa galarazia dago.

25. art. Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako produktibitate ertaineko lurzorua.

Kategoria honetan sartzen dira nekazaritzako kalitate ertaineko lehorreko lurrak eta planoetan agertzen diren belardi, bazkaleku eta irazelaiak, abeltzaintza estentsiborako erabiltzen direnak.

Babes araubidea.

a) Eraikuntzaz kanpoko jarduerak. Baimentzen ahalko da meategiak ustiatzea, legarra eta harea ateratzea, harrobiak, pista edo bide berriak irekitzea eta landaretza erretzea.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

b) Eraikuntzazko jarduerak. Zilegi dira baratzezaintza, mintegi eta berotegietarako eraikin eta instalazioak, abeltzaintza estentsiborako eraikinak, etxeko ukuiluak eta erlezaintzako instalazioak.

Baimena ematen ahalko da:

-Baratzezaintzarako bakarrik diren eraikin eta instalazioak egiteko. Hauek ezin dira inoiz etxebizitza gisara erabili.

-Abeltzaintza intentsiborako erabiltzen diren eraikin eta instalazio bakartuak eta azienda-ustiategiak.

-Nekazaritzako biltegietarako.

-Aziendategietarako.

-Herri-lanak gauzatzeko, haiek mantentzeko edo haien zerbitzurako behar diren eraikin eta instalazioetarako.

-Lurzoru urbanizaezinean kokatu beharreko ekipamendu, dotazio edo zerbitzuetarako behar diren eraikin eta instalazioetarako.

-Kirol eta aisia jarduerari lotutako eraikin eta instalazioetarako.

-Lurzoru urbanizaezinean egin beharreko industri jardueretarako.

-Azpiegituretarako.

-Ohizko bizileku direneterako, araudi honen 21. artikulua xedatutakoaren arabera.

26. art. Lurzoru generikoa.

1. Planoetan agertzen diren gainerako kategorietan sartu gabeko lurrek osatzen dute sail hau.

Kategoria honetan irazelaiak sartzen dira. Bazkaleku moduan edo aziendentzako azpiak egiteko erabiltzen dira eta, beraz, produkzio txikikoak dira.

Lurzoru mota honen barrenean, eremu berezi bat ezartzen da, hain zuzen ere Latsabe izeneko 2. lurzatiari dagokiona. Etxalarko Bentan dago eta kamioiak aparkatzeko lekua da.

2. Babes araubidea.

a) Eraikuntzaz kanpoko jarduerak. Baimena ematen ahalko da pista eta bideak irekitzeko.

Meategien ustiapena, legarra eta harea ateratzea eta harrobiak galaraziak daude.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

b) Eraikuntzazko jarduerak. Zilegi dira baratzezaintza, mintegi eta berotegietarako eraikin eta instalazioak, abeltzaintza estentsiborako eraikinak, etxeko ukuiluak eta erlezaintzako instalazioak.

Baimena ematen ahalko da:

-Herri-lanak gauzatzeko, haiek mantentzeko edo haien zerbitzurako behar diren eraikin eta instalazioetarako.

-Lurzoru urbanizaezinean kokatu beharreko ekipamendu, dotazio edo zerbitzuetarako behar diren eraikin eta instalazioetarako.

-Kirol eta aisia jarduerari lotutako eraikin eta instalazioetarako.

-Nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako.

-Azpiegituretarako.

-Familia bakarreko etxebizitza bakarturako, titularraren ohizko bizilekua izatekoa bada, LUEaren araudi honetako 21. artikulua ezarritako baldintzetan.

-Gainerako guziak galaraziak daude.

3. Latsabe inguruko 2 zenbakiko lurzatiari dagokion babes araubide berezia.

Artikulu honetan lurzoru generikorako ezarritako babes araubideari lotuko zaio, baita honako determinazio hauei ere:

Kamioientzako aparkalekua baimentzen ahalko da, honako determinazio hauekin:

.Aparkalekura sartzeko Behobia aldetik etorrira, sarbideak dezeleratzeko bidea izanen du. Haren luzera indarrean dagoen araudiak xedatutakoa izanen da.

.Elkargune horretako erreien zabalera, aurreikusten den trafikoaren arabera egingen da.

.Gutxienez 200 metroko ikuspen tarte beharrezkoa da. Beraz, aparkalekuan jabari publikoko eremuek eta bide-zorrek, bederen, okupatu gabe gelditu beharko dute.

.Beharrezkoa da lur gaineko ura modu egokian ateratzeko aurreikuspenak egitea. Hori dela eta, aparkalekutik galtzadara urik joan ez dadin bermatzeko, behar diren obrak egin beharko dira.

.Lur gaineko urak ibai edo errekarara grasa, olio edo antzekorik gabe atera beharko luke. Beraz, beharrezko neurriak ezarriko dira aipatu haietara isuritako urek garbitasun baldintza egokiak betetzen dituztela bermatzeko (dekantazio-putzua, liserigailua edo antzekoa).

27. art. Lurzoru generikoa: aduana.

1. Balio natural eskaseko lurrak dira. Frantziako estatuarekiko mugan daude eta bertan merkataritza eta ostalaritzarako eraikin batzuk eta aduana zaharreko etxea daude.

2. Babes araubidea.

a) Eraikuntzaz kanpoko jarduerak. Baimena ematen ahalko da pista eta bideak irekitzeko.

Meategiak ustiatzea, legarra eta harea ateratzea eta harrobiak galaraziak daude.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

b) Eraikuntzazko jarduerak. Zilegi dira baratzezaintza, mintegi eta berotegietarako eraikin eta instalazioak, abeltzaintza estentsiborako eraikinak, etxeko ukuiluak eta erlezaintzako instalazioak.

Baimena ematen ahalko da:

-Herri-lanak gauzatzeko, haiek mantentzeko edo haien zerbitzurako behar diren eraikin eta instalazioetarako.

-Lurzoru urbanizaezinean kokatu beharreko ekipamendu, dotazio edo zerbitzuetarako behar diren eraikin eta instalazioetarako.

-Kirol eta aisia jarduerari lotutako eraikin eta instalazioetarako. (Eraikina haunditzeko baimena ematen ahalko da, baina betiere oraingoari erantsitako bolumena izanen da eta galtzadaren ertzetik gutxienez 18 metrotara. Merkataritza eta ostalaritza jardueretarako baimena ematen ahalko da, baita aparkaleku haundietarako ere, erabilera horiek lurzoru urbanizaezinean berezkoak baitira muga aldean)

-Nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako.

-Azpiegituretarako.

-Familia bakarreko etxebizitza bakarturako, titularraren ohizko bizilekua izatekoa bada, LUEaren araudi honetako 21. artikulua ezarritako baldintzetan.

-Aduana zaharreko etxean, baimena ematen ahalko da barreneko erreforma egiteko, higiezinaren higieze, apaindura eta kontserbazio egoerak hala eskatzen duten neurrian, baina, betiere, jabetze balioa haunditu gabe.

-Finkatze-obra partzialak egiteko baimena ematen ahalko da. Izan ere, heldu diren hamabost urteetan etxea botatzerik ez baita aurreikusi.

-Gainerako guztiak galaraziak daude.

Ukipen berariazkoen lurzorua

28. art. Lehendik dauden azpiegiturak. Bide-azpiegiturak.

1. Lurzoru urbanizaezinaren kategoria honetan honako bide hauek sartuak dira: N-121-A errepidea (Iruña-Irun); Etxalarrera sartzeko NA 4400 tokiko errepidea eta Etxalar-Zugarramurdi arteko tokiko errepidea.

-Planoan zehazten diren bide publiko eta pisten sarea.

2. Babes araubidea.

1. Errepideen ondoan, haiekin mugan dauden edo haien eragin eremuaren barreneko lurretan egin gogo diren eraikuntza eta instalazioak, zuhaitz botatze edo landatzeak, ezin izanen dira egin Errepideei buruzko Legeak ezarritako gutxienerako distantzien azpitik.

2. N-121A errepidearen bi aldeetara eraikitzeke lerroa ibilgailuen galtzadaren kanpoko ertzetik 25 metrotara hasten da. Tarte horretan galaraziak daude eraiki, berreraiki edo eraikuntzak haunditzeko obrak. Salbuespen gisa hartuko dira higie, apaindura edo kontserbaziorako lanak, alde zuzenetik eskumena duen foru organoak baimena emanda. Distantzia hori galtzadaren kanpoko ertzetik neurtuko da.

Gainerako errepideen kasuan (NA 4400 eta Etxalar/Zugarramurdi arteko errepidea) eraikitzeke lerroa 18 metrotara egonen da. Betiere ibilgailuentzako errepidearen kanpoko ertzetik neurtuta. Tokiaren ezaugarrietatik edo bertzelako arrazoiengatik egokitzat joz gero, salbuespen moduan, distantzia hori murrizten ahal da. Horretarako, alde zuzenetik Nafarroako Gobernu Bide Departamentuaren txostena behar da.

Dagokion baimena emateko, indarrean dagoen legeriak ezarritako baimenak beharko dira.

3. Lursailetatik errepideetarako (eskualdekoak nahiz nazionalak) sarbideak bigarren mailako adarren bitartez egingen dira. Bigarren mailako bideek eskualdeko errepidearekin edo nazionalarekin egiten dituzten elkarguneetan, gutxienez 300 metroko tarte utzi beharko da batetik bertzerara, eta beti ikuspen haundiko lekuetan egingen dira.

4. Tokiko errepideen kasuan, lursailetarako edo bigarren mailako bideetarako sarbideak ikuspen haundiko lekuetan egingen dira.

5. Bide publikoak. Errepideak Babesteari buruzko Foru Legearen babes araubideari nahiz ibilbide interesgarrietarako finkatutakoari lotu behar ez zaizkien bide publikoentzat, hiru metroko zortasun-aldea ezartzen da, bideon kanpoko ertzetik neurtuta. Hiru metro horretan honako babes araubide hau ezarriko da:

a) Eraikuntzaz kanpoko jarduerak. Galarazia dago meategiak ustiatzea, legarra eta harea ateratzea, harrobiak eta matarrasan moztea,

Berekin lur mugimendua dakarten bertze gainerako jarduerak baimentzen ahalko dira.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

b) Eraikuntzazko jarduerak. Azpiegiturak baimentzen ahal dira.

Gainerako guztiak galaraziak daude.

Bertzelako azpiegiturak.

-Goi-tentsioa:

Eraikuntzak, instalazioak eta landaketak Goi-tentsioko aireko lineei buruzko Erregelamenduko (1968-12-28koa, 1966-04-18koa eta 1966-10-20koa) zortasunei lotuak egonen dira.

-Linea elektriko berriak jartzea galarazia dago, baldin eta horretarako arbolak bota behar badira.

-Saneamendu eta arazketa sarea:

Udal kolektoreek eta araztegiak okupatu edo ukitzen dituzten lurak dira.

Babes araubidea.

Azpiegiturak zilegi dira.

Gainerako guziak galaraziak daude.

Eraikuntzazko jarduerak.

Baimentzen ahalko dira eremu horretan aurreikusita dagoen azpiegitura edo instalazioa gauzatzeko obrak, baita gauzatze horretarako, haiek mantentzeko edo haien zerbitzurako behar diren eraikuntza nahiz instalazioak ere.

Gainerako guziak galaraziak daude.

Obra-hondakinen zabortegia.

1. Obra-hondakinen zabortegirako diren lurak osatzen dute. Azalera, gutxi gorabehera, 2.750 m²koa du.

2. Babes araubidea.

Zabortegiko proiektua Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Departamentuak eta Iparraldeko Ur Konfederazioak baimentzen dute eta han heldu dira berari dagozkion arauak.

Bakar-bakarrik onartzen dira proiektu horretan arautzen diren erabilerak.

Araztegia.

1. 267. lurzatian kokatua.

2. Babes araubidea.

Instalazioa zaindu, haunditu eta mantentzeko erabilerak zilegi dira. Gainerakoak galaraziak daude.

29. art. Egin gogo diren azpiegituren lurzorua.

Sail honetan helburu hauek dituzten lurak sartuak daude:

Aldaketak NA-121-A errepidearen trazatuan.

Aldaketak NA-4400 errepidean

30. art. Ur babestuen lurzorua.

1. Lur gaineko urak.

Halakotzat hartzen dira ibai eta erreketako bazter eta hegiak, eta ibilgu edo ubide naturalak.

2. Babes araubidea.

Urari buruzko legeetan agindutakoa galarazi gabe, ubide naturala babesteko, bazter bakoitzean 5 metroko eremu bat ezartzen da Etxalarko udalerriko ur korrante guzientzat, sasoi bateko nahiz urte osokoak izan, Bidasoa ibaiarentzat salbu.

Bidasoa ibaian eremu horren zabalera izanen da ibilguarenaren parekoa, zeina 15 m-koa jotzen baita, gutxienez.

a) Eraikuntzaz kanpoko jarduerak.

Galarazia dago zuhaitzak matarrasan moztea eta egurretan aritzea babes eremuko lehen bost metroetan, eta bai landaretza erretzea ere.

Babes eremuetan baimentzen ahalko dira berekin lurra mugitzea eta luberritzea dakarten ekintzak.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

b) Eraikuntzazko jarduerak.

Babes eremuetan baimentzen dira mintegiak eta berotegiak eta erlezaintzako instalazioak; baimentzen ahal dira arrain haztegiak, ibai-errekekin zerikusia duten aisi eta kirol jarduerari lotutako eraikinak eta instalazioak, ibai-errekekin zerikusia duten ekipamendu, dotazio edo zerbitzuetarako eraikin eta instalazioak, herri-lanak eta azpiegiturak gauzatu, mantendu eta haien zerbitzurako behar diren eraikin eta instalazioak.

Gainerako guziak galaraziak daude.

Udalerriko erreketan, lur gaineko uraren kalitateari begira eta, salmonidoak bertan bizitzeko, ubide horiek egokiak izan daitezen, honakook hartuko dira kontuan:

-Arrain kopuruaren kontrola: urtero ikustea zenbat arrain dauden.

-Kanpoko arrainik ez sartzea.

-Nekazaritzatik heldu diren isurien kutsaduraren kontrola.

-Ibilguak eta bazterrak mantentzeko planak egitea.

-Hiri-kutsaduraren eta ur-emariaren goiti-beheitien kontrola.

31. art. Populazioguneen ingurunea.

1. Sail honetan sartzen dira populazioguneen mugakide diren lurrak, babestu behar direnak, populaziogune horien etorkizuneko zabaltzea edo egitura edo itxura ez oztopatzeko.

Planoetan zehaztua dago zein den populazioguneen ingurune hori.

2. Babes araubidea.

a) Eraikuntzaz kanpoko jarduerak

Lurretik materiala ateratzeko jarduerak galaraziak daude.

Baimentzen ahalko dira berekin lur mugimendua dakarten gainerako jarduerak.

Gainerako jarduerak zilegi dira.

b) Eraikuntzazko jarduerak.

Hiriguneen ingurunean, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro kontseilariak baimentzen ahalko ditu interes publikoko azpiegiturak eta behin-behineko obra eta instalazioak burutzea. Azken horiek planeamendua gauzatu aurretik beharko dira eraitsi edo aldatu, interesatuaren kontura eta kalte-ordaina hartzeko eskubiderik gabe. Behin-behineko obrei baimena emateko, promotoreak fiantza bat edo bertze berme bideren bat aurkeztu beharko du, burutzeko proiektu teknikoan ageri den obra kostuaren ehuneko hogeikoa. Eraikuntzazko gainerako jarduera guziak galaraziak daude.

Landaguneen ingurunean baimentzen ahalko dira azpiegiturak eta behin-behinekoak obrak, aurreko lerrokadan aipatzen den moduan. Halaber, baimentzen ahalko dira planeamenduan espresuki aipatzen diren eraikuntzak, baldin eta trabarik egiten ez badiote hiri sarea gero batean garatzeari eta populaziogunearen izaera tradizionalari egokitzen bazaizkio. Gainerako guziak galaraziak daude.

Lehendik dauden eraikinak, planeamenduak antolamendutik kanpokotzat jotzen ez baditu, zaharberritzen ahalko dira, azalera haunditu gabe, hiri-lurzoruan baimenduriko erabileretarako.

32. art. Igerilekuen ingurunea.

1. Planoetan hala zehaztu diren lurak dira, igerilekuen inguruan daudenak. Gutxi gorabeherako azalera 13.580 m²koa da.

2. Ingurune honekin ekipamendu eremuarentzako babes-eremu bat zehaztu nahi da, han aurreikusitako kirol-erabilerekin bateraezinak lirakeen bertzelakoak saihesteko, aipatu erabileren gainean edo haien hedapenaren gainean eraginik izan ez dezaten.

3. Erabilerak.

a) Eraikuntzaz kanpoko erabilerak. Nekazaritza eta abeltzaintza estentsiborako erabilerak zilegi dira.

Gainerako guziak galaraziak daude.

b) Eraikuntzazko erabilerak. Zilegi da ekipamendu eremua haunditzea, igerilekuen aldeari loturiko kirol ekipamenduaren bidez.

Eraikuntzak gehienez ere lurzatiaren azaleraren % 10 hartzen ahalko du.

Baimentzen ahalko da berotegiak egitea, igerilekuen eremuan usainik eta trabarik sortuko ez dutela justifikatzen bada eta estetikoki paisaiarekin bateragarriak baldin badira.

Gainerako guziak galaraziak daude.